



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

NOTA DE PRENSA

ASTELEHENETIK AURRERA, ALDUNDIAK LEKUZ ALDATUKO DAU BIZKAIBUSEN HIRU LINEAREN GERALEKUA, KAPUTXINOETATIK BILBOKO AUTOBUS GELTOKI INTERMODAL BARRIRA

- **A3930, A3513 eta A3523 lineek daborduko ez dabe zerbitzurik emongo Kaputxinoak kaletik, eta datorren astetik aurrera Bilboko geltoki Intermodal barrutik egingo dabe.**

Miguel Ángel Gómez Viar Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako Foru Diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietako batzordean gaur baieztu dauenez, astelehen honetan, zezeilaren 10ean, Bizkaibusek egokitu egingo dau Bizkaiko uriburuko foru zerbitzuko hiru linearen burualdea. Holan, A3930, A3513 eta A3523 lineek daborduko ez dabe zerbitzurik emongo Kaputxinoak kaletik, eta datorren astetik aurrera Bilboko geltoki Intermodaleko lur azpiko dartsenetatik egingo dabe.

Igazko azaroaren 27an inaugurau zan geltoki Intermodalera aldatzeak izan dauen atzerapena dala eta EH Bildu taldeak egin dauen erantzun-eskeari erantzunez, Aldundiko arduradunak adierazo dau aldaketaren eragina jasoko dauen ibilbideetako bat Bilbo eta Galdakao autopistatik lotzen dituan 3930 linea izango dala. Horrekin bat egingo dabe Bizkaiko uriburua Usansoloko ospitaleagaz lotzen daben beste ibilbide bik. Gernikatik igaroten dan eta Lumon amaitzen dan A3513 linea, eta aurrekoaren antzekoa dan eta Aulestitik igaroten dan eta Lekeition amaitzen dan A3523 linea dira.

Trapagako Udalak Barik txartela erabilia Bizkaibusen prezioa merketzeko hartu daikean erabagia zabaltzeko Aldundiak dituan aurreikuspenakaz erlazonauta EH Bildu taldeak egin dauen beste erantzun-eske bati erantzunez, diputatuak esan dau bere Sailak ez dauela horren inguruko ezelango neurririk aurreikusten, eta aitatutako udalera mugatzen dan ekimena dala.

Komunak gidaritzako beharginentzat



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako batzordearen saioa EH Bilduk eskatutako agerraldiagaz hasi da, Aldundiak Pesalur esleipendunaren Bardintasunerako batzordeak egindako eskariari erantzuteko. Eskari horretan, “Bizkaibusen hainbat linearen hasierako eta bukaerako geralekuetan komun mistoak” instalatea eskatzen zan. Eskarian, “uriguneetatik urrun dagozan geralekuak aitatzen dira, horreetan gaitza dalako inguruan komun bat topetea, emakume gidarien beharrei erantzuteko, batez be”, Raúl Méndez koalizino abertzaleko batzordekideak zehaztu dauenez.

Diputatuak errepikatu egin dau beharginei idatziz emon eutsen erantzuna. Bertan, kexea euren enpresaren bitartez bideratzeko eskatzen jaken, izan be, Gómez Viarren eretxiz, gai hori laneko erlazinoen esparruan dago. “Enpresari jagoko arazo horri erantzutea”, zehaztu dau.

Dana dala, diputatuak ez dau etorkizunean aldaketaren bat egoteko aukerarik baztertu. Bere eretxiz, eskaria “bidezkoa” da, baina hobekuntzak eskatu behar dituana enpresea izan behar dala esan deutse beharginei. Dana dala, jakinarazo deutse ez dagola Aldundiak kontratuaren inguruan gaur egun dituan betebeharren barruan. Podemos Bizkaia taldeak aurreikusi dauenez, gidaritzako beharginentzako komunak instalateak “500.000 euroko” kostua izan leike.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN TRASLADA A PARTIR DEL LUNES LA PARADA DE TRES LÍNEAS DE BIZKAIBUS EN BILBAO

- **Las líneas A3930, A3513 y A3523, dejarán de prestar servicio desde la calle Capuchinos, operando a partir de la próxima semana desde el interior de la Intermodal de Bilbao.**

(Bilbao, a 6 de febrero de 2020). - El diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Miguel Ángel Gómez Viar, ha confirmado hoy en comisión, en las Juntas Generales de Bizkaia, que Bizkaibus readecuará este próximo lunes, 10 de febrero, la cabecera de tres líneas del servicio foral en la capital vizcaína. En concreto, las líneas A3930, A3513 y A3523, dejarán de prestar servicio desde la calle Capuchinos, operando a partir de la próxima semana desde las dársenas subterráneas de la estación Intermodal de Bilbao.

En respuesta a una pregunta oral de EH Bildu que preguntaba el motivo por el retraso de dicho traslado a la Intermodal, que fue inaugurada el 27 de noviembre, el responsable foral ha confirmado que una de las rutas afectadas por el cambio será la línea 3930 que conecta Bilbao con Galdakao por autopista. A ésta se le unirán otras dos rutas que enlazan la capital vizcaína con el hospital de Usansolo. Se trata de la A3513, que pasa por Gernika y que finaliza en Lumo, y la A3523, similar a la anterior que incluye a Aulesti y Lekeitio como punto final.

Tras otra pregunta de EH Bildu en relación a las previsiones que maneja la Diputación para hacer extensible la posible decisión del Ayuntamiento de Trapagaran de rebajar el precio de Bizkaibus utilizando la tarjeta Barik, el diputado ha negado que su departamento contemple medida alguna en tal sentido, ya que la misma forma parte de una iniciativa exclusiva de dicho municipio.

Baños para personal de conducción

La sesión de la Comisión de Transportes y Movilidad Sostenible ha comenzado con una comparecencia solicitada por EH Bildu para que el diputado



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

respondiera a la solicitud cursada por la comisión de Igualdad de la concesionaria Pesalur, en la que se pedía la instalación de “aseos mixtos en las diferentes paradas de cabecera y final de recorrido de varias líneas de Bizkaibus”. La solicitud “se refiere a las paradas alejadas del casco urbano, en las que es muy difícil encontrar un baño en la zona, sobre todo para atender las necesidades de las mujeres conductoras”, ha concretado el juntero de la coalición abertzale Raúl Méndez.

El diputado ha repetido la respuesta que , por escrito, ya trasladó a los propios trabajadores, en la que se les instaba a canalizar dicha queja a través de su propia empresa, ya que, a juicio de Gómez Viar, la cuestión pertenece al marco de relaciones laborales. “Corresponde a la empresa dar respuesta a esta problemática”, ha matizado.

De todas formas, el diputado no ha cerrado del todo la puerta a cambios futuros. Ha tachado la petición de “justa”, pero ha pedido a los trabajadores que sea la empresa la que solicite dichas mejoras, si bien advirtiendo que la misma no entra en las actuales obligaciones contractuales de la Diputación. El grupo Podemos Bizkaia ha estimado que la instalación de estos baños para el personal de conducción podría acarrear un coste de “500.000 euros”.